


Sexua

Pornografiak gazteon ohitura sexualak eraldatu ditu

'Mainstream' pornografian islatzen diren jarrerak nagusitzen ari dira: dominazioa eta falozentrismoa


Eduki pornografikoak nonahi aurki daitezke sarean. Eduki horien kontsumoa masiboa da eta adin-tarte guztietako kontsumitzaileak daude, bereziki, gazteak. **Covenant Eyesek** urte honen hasieran ezagutzera eman zuen ikerketa baten arabera, batez beste, gazteak hamabi urterekin hasiko lirateke pornografia kontsumitzen, batez ere, telefonoaren bidez. Gaur egun, gazte gehienek sexua pornografiaren bidez ezagutzen dute eta horrek eragina du.

Funtsean, pornografiak harreman sexualen eredu bat ezartzen du. Eredu horrek, kasu gehienetan, topo egiten du errealtatearekin: izan ere, benetako harreman sexuak ez dute pantailan ikusitakoarekin harreman handirik. Tamaina handiko zakilak edo bularrak, iraupen luzeko harremanak, eiakulazio itzelak... horiek guztiak (bereziki) mutil gazteen irudikerian geratzen dira, baina horietara iristea ezinezkoa egiten zaie eta horrek, hainbat kasutan, frustrazioa eragiten die.



Pornografiaren gehiegizko kontsumoa egiten duten gazteek benetako sexu-harremanekiko interesa galtzen ohi dute pantailan euren gogoa asetzeko modu azkarra aurkitzen dutelako

Aipatu irudikeria ez ezik, *mainstream* pornografiak sexismoa ere sustatzen du. Eduki horietan emakumea gizonen ametsak asetzeko objektuak bilakatzen dira. Horrela, film horien ardatza gizonezkoen sexu-organoa da eta, sarritan emakumeenganako dominazioa nagusitzen da. Hainbat ikerketek azaldu dutenez, pornografiaren kontsumoak gazteon sexu-ohitua eraldatu ditu. Eduki horiek kontsumitzen dituztenen sexu-ohiturak guztiz desberdinak dira eta, kasu gehienetan, film horietan ikusitakoa imitatzen saiatzen dira.



PORNOGRAFIAREN KONTSUMOA. Zenbait ikerketen arabera, sarean diren edukien guztien % 30 inguru eduki pornografikoak dira. Bisita gehien dituen atari pornografikoak (PornHub), adibidez, hilero 4 bilioi bisita baino gehiago ditu.

"SEXUA PRAKTIKATZEN LESIONATU NAIZ"

Hala da. Sexu-harremanak mantentzerakoan posible da lesioren bat izatea. Gainera, badira txortan ari garen unean komunagoak diren zenbait lesio. Meetville atariaren arabera, lesio horiek uste baino ohikoagoak dira eta helduen heren batek, gutxi gora behera, horrelako lesioren bat izan duela azpimarratzen du. Lesio gehienak arinak izaten dira: hematoma eta altzarien aurka hartutako kolpeak edo mairidireekin izaten den marruskadura dela eta egiten diren azaleko erreduak. Bestelako lesioak zaintiratuak, karranpak edota bihurrituak izan daitezke. Emakumeen kasuan, gerri inguruan diren giharretan arazoak izaten ohi dira, bereziki, hankak denbora luzez zabalik izaten badira. Gezurra badirudi ere, misiolariaren postura egokia da horrelako lesioak eragiteko.

SEXUAREN TXOKOA

Coitus interruptus

Gazte askok **coitus interruptus** edo **atzera-martxa** erabiltzen dute antisorgailu gisa euren sexu-harremanetan. Izenak berak dioen bezala, prozedura eiakulazioa aurretik zakila baginatik ateratzean datza.

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da atzera-martxa ez dela antisorgailua. Bestelako antisorgailurik erabiltzen ez bada teknika horrek ez du nahi gabeko haurduntza eragozten eta, gainera, ez du sexu-transmisiozko gaixotasunen aurkako inolako eraginik. Kontzeptu bi horiek nahiko argiak diren arren, gazte askok atzera-martxa erabiltzen jarraitzen dute.

Zenbait ikerketaren arabera, teknika hori erabiltzen diren kasuen % 25ean nahi gabeko haurduntza ematen da. Beste antisorgailuekin alderatuta, atzera-martxaren eraginkortasuna oso mugatua da. Adibidez, **UBG (Umetoki Barneko Gailua)** erabiltzen denean nahi gabeko haurduntzen kopurua % 0,6koa besterik ez da eta kondoiaren kasuan, % 2.

Atzera-martxa eraginkorra izateko zakila baginatik atera behar da eiakulazioa eman aurretik. Sarritan, gizon askok horretarako gai direla uste dute, baina, kasu gehienetan, arazoa ez da eiakulazioarekin ematen, eiakulazio aurretik izaten den **likido aurreseminalarekin** baizik. Eiakulazioa eman aurretik zakilak likido bat isurtzen du; likido hori kitzikapenarekin azaltzen da eta bere funtzioa zakila lubrifikatzea da. Likido horretan, printzipioz, ez lirateke espermatozoiderik aurkitu behar, baina gerta liteke, kopuru txikiren bat egotea eta, ondorioz, haurdun geratzeko arriskua dago. Gizonek ez dute isurketa hori kontrolatzeko modurik.

Oro har, ezjakintasun handia dago teknika horren inguruan. Zoritxarrez, oraindik ere, beste antisorgailu baten faltan, asko dira teknika horretara jotzen duten bikoteak. Ikerketa baten arabera, mundu osoko biztanleriaren % 3 inguruk teknika hori antisorgailu nagusitzat erabiltzen du.

LOHIZUNE LOROÑO

Mi Psicólogo Getxo

